

Etxe-bizitza utsak A N D I M A - R I

Oraintxe urtebete inguru, Gaztelz'ko Aiantamentuak zerga edo kontribuzio berria jarri zieten etxe-bizitza utsei. Zerga ori, bizilekuak duan alogeraren euneko 40'tik 60'ra bitartean erabakiko da. Pagakizun onen asmoa agiriari dago: utsiak dauden etxeak errentan eman ditzatela bere jabeak.

Artu dan neurri ori oso bidezkoa ta zuzena da; ta erri aundi guzietan, batez ere, artu ber litzakena. Etxe-bizitza premia, alde guzietan agiri dago. Asko dira aterre-billa dabiltzanak; etxerik ez dutelako, ezkondu ezinda ikusten ditugunak eta abar...

Premi ori ase artean, ezin eukiko ditugu utsiak gerok bear ez ditugun etxe-bizitzak. Norbaitek betetzeko egiñak dira; ez, al-dan diru-etekiña atezatzeko, neurri ta denborarik gabe.

Norberak bear ez dituanak, bestentzako eskeintzea, gizarteak eskatzen duen eginbearra da. Ta eginbear au, zuzentasunak, justiziak eskatzen duana da. Izan ere, berrean dagoenak, bere alde du bestek bear ez dutena beren premia betetzeko artzea. Orain arte, karidade-lanak ziralakoan gauden onelago eginbearrak. Zor ez genituanak zirala, uste genduan. Baiña gauzak oheto begratuta, garbi dago, eginbear auek, zor dizkiegula premie bizi diranei. Utsiki-lana da, onelakoetan, bearrean bizi diranei, guri sobratzen zaizkigunak eskeintzea.

«Populorum progressio» Eliz-Gutunak, garbi erakusten digu, gauzen gain degun jabetasuna ez dala neurririk gabea. Nik ezin neretzako bakarrik gorde, bestek bear dutena, nere gauzaren bat bearrezkoa ez dedanean; neri sobratzen zaizkidan ezin lotu nitzake nerepean, beste giza-emakumeren batzuek bear gorrian dauden bitartean. Au da buruaste onen eskabidea.

Agian, eginbear au, limosna bezela zer bait eman bearra degulako, sortzen al-zaigu? Ez orregatik. Beste iturri bat du eginbear onek. «Jainkoak, lur au eta emen degun guzia gizon guzien onerako egin du».

«Beste eskubide guziak, bai bakoitzaren jabetasuna ta bai sal-erosketa-legeak, gizon guzien onari begira jarri bearra degu. Gizon guzien premiak neurtu bear dute, bakarraren jabetasunari utzi bear zalona. Gizartea prempiean bizi danean, bakarraren jabetza ez da mugarik gabea. Bakarrik, premerik ez duan gauzetan, beste gizonen premiei liguendu bear die. Ortarako egin zituan Jainkoak. Eman dezaiegun gauza oiei, Jainkoak eman zien bideak».

Aita Santuaren itz auek, noski, etxe-bizitza arazoan ere beren indarra dute. Zuk zere diruz naiz lanez zeure egin dezun gauza, eztezu zeuretu, zeuretzako bakarrik izan dedin. Gauza guziak, zenbait bizigunetan, gizartearen serbitzua ere bete bear dute.

Ortan, len eskubide muga-gabea bezela ikusten genduan jabetasuna, beraz, ez bakarraren onerako, baizik gizartearen onerako komeni dan neurrian erabili bearko degu aurrerantzean.

Zertan gelditzen da, ba, bakarrik bere gauzen gain duan jabetasuna? Gizonak gizon izateko bear-bearezkoak dituan gauzak, bere eskupean utzi bear dira. Ortik gorakoak, bakarrik bere gizatasauna gordetzeko bear ez dituan gauzetan, jabetasuna beste gizonen premiak neurtu bear dute.

Iritzi auek aintzat artu bearrean gaude. Eginbear auen erantzupidea, guzioi dagokigu. Gosepean eta beste prempiean bizi diranen eziñak gure bearrezko ez ditugun gauzen eskubidea dute. Eskubide auek bere betean onartzen ba-ditugu, orduan, zuzentasun-aide onek eramango gaitu gizartearen aurrera, gere erantzupide osoa ezagutzen degun gizon jator izatera.

Nere erantzuna artu baño len i zera. Jaunaren pake gozo abotik irakurri dezue. Nere asteroko artikulotzuek goraltzen zenikidan zure kartan. Nere bitartez emengo makina bat berri jakiten zenuela eta eskerrak ematen.

Nere bitartez Doña Elena-ren eriotza jakin zenuela adierazten zenidan. Bai, Doña Elena Gametxo, Donostiako lenen-lenengo umetxoan eskul ikastola maixtra. Kortezubi, Bizkaiko alaba, alargun agurgarria. Doña Elenaren etxean biok ezagutu genduan. Orduetik giñan lagun.

Etxe artan bertan baita ere ezagutu nuan Doña Luisa, doña Elena-ren aizpa. Doña Luisa itxasontzi kapitana baten alarguna. Elantxobe-n bizi zan. Bein batez Elantxobe-raño joanda egin nion bixita. ¡Nolako itxasbita zabalak ikusten zirala gero Natxibete itxasontzi nagusi izan zanaren etxeko kristalezko begiralekutilik!

Orduantxe nabaitu nuan elantxobetarren berezitasun bat. Zuentzat, elantxobetarrentzat, itxas-mugatik da eguzkiaren irteera beti.

Gerotzik, Donostiko Gaztelutik, gandurik gabeko egoitze-goiz askotan, katalajo edo ta baita prismatico bitartez, Elantobe garbi oso ikusi izandu det askotan. Ogoño mendi beltzean etxe izarzika talde zoragarriya itxas ertzerano txintxilika. Lezu zoragarria artista bantentzat.

Doña Luisa, ta baita zurekin, eta zergatik esan ez, zure aita agurgarri amets-eder zalearekin, gogoratze nizan zeri. ¡Orra or Elantobe, Ibinagabeteia-tar Andimaren erri bene-benetan amesgarriya! Bertara iritzi nira-

tzan arratsalde artan, biotz muin-muineteraño sartu zitzaidan.

Baño ez daukat geiago Donostiko Gaztelura igotzerik, oieiz beintzat. Akabatu neretzat beste aldeko Euskalerriko kosta berdiñari nere prismaticuakin egiten nizkion begizatze aspertu eziñak. ¡Zenbat gustatzen zitzaidan urrutiko mugak urreratzeal Bai, Andima, aurrera goa...!

Zeorrek gogoratzen zenidan zure aizkenengo karta bukaeran: "Aspaldi ontan oso nabli makal biotzetik, baña orain askoz ere pizkorrago nago laister lanean asteko. Urteak ez didate barkatzen".

Zure burua engaiatu nai aldenzuan? Biotzak eman zaitu aizkenean. ¡Egun aundiarate, Andima, egun aundiarate!

Baño fede bizizko itz oekin ez det bukatzen. Ni emen nago oraindik. Eta auxe esan nai nieke zure inguruan naigabez utzi ditudun.

Makiñabat lan, eta ez nolantako lana, egin dezue. Makiñabat apunte utzi dituzu noski. ¡Ñork bildu alditu?

Baño etzera zu bakarrik. Mexiko-n, Venezuela-n, Argentinan-n, Guatemala-n, Peru-n, munduan zere sakabaita makiñabat euskaldun ospetu ari dira desterrata lanian, biotza ilusiyoz beterik.

Galdera onekintze bukatu nai nuke nere gaurko lan-txo. Oien danan estudio paper bereziakin, zer gertatu bear du? Nork jaso bear ditu oiek danak?

JOSE DE ARTECHE

San Martin adiskideari

Zure Z. A. 244 koagatik idazten dizut.

Unamunozale izan naiz eta ba naiz. Nire galdera, ordea, ez zegoen perspektiba orretan, gure izkuntzarekiko arloan ez naiz Unamunozale batera. Ori ez jakitae eta da zure kulpa.

Laudoriorik espero al nuen galdezten dugu. Espero ez nuena esango dizut erantzunen batzuek, baitaipat. Karta sail bat ere ez, anonimoak gutxiago, talderen izenean egindakorik ere ez. Aide ala adiskide gorabera onetan, begirune aundirik gabe, nahastuko zizkidatenik, orixe gutxienean, iñork egin duen eren batez ere. Izentzaharrak, niri ala adiskidei iridatzi naiz esanik ere ez, etc. Zuk ez zenukan ori guztia zergatik jakin, egia da, baiña ez zitzaidan olako ezer Z. A.-n botatzea ondo irudit. Ez zeukaten gure giarekin zerikusirik, ez ziran Z. A.-ren irakurleentzako asmatuak. Zure gaurko ironia ere ez nuen espero, baiña konprenitzen dut, goiko ori guztia jakiterik ez zenukan-eta.

Ohar bat: nik neure lekuan gelditu nai dut, ez Intxausti-rekin bate-

gin. Bi buru gera ta bi pentsamentu. Niri baimenik eskatu gabe —ta ez aholkurik— idatzi du Intxausti-aren arena. Zuk bezalaxe, arek idatzi ta gero izan dut karta orren berri. Arik idatziak ez dira, beraz, nik idatziakoen luzapen, arenak aren dira ta nireak nire. Intxausti-rekin konforme ez nagoela, guzietan beintzat, beste nunbait esateko uzten dut.

Aitoritzen dut gaizki planteatu nuela galdera. Ori ikusi nuen ordukoxe ta obe batentzako Z. A. ez nuela leku egokia (nire uestean) oharu bezain laister aldatu nai izan nizu beste norabait. Eztabaida au Z. A.-n erantzun zidanaetako batekin kartaz eramatea entseatu nuen lehenengo. Kalgearri bazan, soluzio on bat billatu arte geuk ixillan lanegin ta orduan resultatoko aldizkariaren batean argitaratzeko asmotan. Asi ere asi genuen, gero ezin jarraitu, ez nik nai ez nuelako (lau karta gutxienez ba daukatz, saio onetakoak). Bide au galdurik, beste bat probatu nizu. 11,7,67, euskal aldizkari baten Zuzendariari idatzi nion, aren aldizkariaren gaia berriro planteatu ta asteiko. Erantzuna «Zertarako euskaldun orri buruz idatzea, egia esateko, ez zait egokia iruditzen». Oetan jakin nuen beste euskalzaile batengandik, aren iritziaren eue nuela eztabaida ori bein betiko errekarra bota ta kitto. Eta alare, orain jakin-aren barriro asirik, berriro entsetuko naiz.

Orduan ixildu egin banintzan, ba, nire ixiltze ez da teman zerratzea ta maiñak egitea izan, seguru asko itxura orixe izan bazezakean ere. Nik ez nuen ori pentsatu.

Beraz, adiskide San Martin, ondo iruditzen al zaizu, emandako tratatu nire ideoen iturria agortu ote zueneko idatzi dugun ori? Bear bezala konprenitu ez zitzaidan uestea, bai, ba nuen. Orrela izanik, defenditzeko eskubide ba nuen-ta, esaten duzu, mintzatzea asko nuen: probatu nuen, esan dizut. Defenditua, ordea, neure burua ala nire gaia egin-go nuen? Gaia ez nuen Z. A.-n defenditua nai, ezpada beste nunbait. Neure burua defenditzen, berri, derrigor tonu pertsonala erabili bear, ta mindua banengoen ez da, noski, arritzekoegi.

Z. A. 211 ikusten gennuez, an-

go artikuluekin ematen zitzaion azken gaure giari. Bitartean gauza asko ari ziran pasatzen errebistatik kanpo. Unamunistatz josten ninduten geroago «itxia» zegoen errebista orretan bertan. Nire erreakzio minbera personal uestezko izan zan, zuk konprenitzen ez duzun zer bait (nik ere ez nuen konprenitu nola bukatua zegoena jarrai zitekean), eta neuk ere aitoritzen dut gaizki egin nuela. Ez nuen gaia defenditzen, ezpada neure burua, gau bezalaxe, eta izentzaharretatik ordukoan.

Planteamentu berrikk Z. A.-n ez egitea arabarik neukan ezker, ez dakit zer asko geiago egin nezakean. Orduaroko ba nekien eztabaidaren funtsa ta arekin nahastuzko gorabera personalak bereizten. Apartatu nai nituen ere, nahaste onek ez zigula kalte besterik egiten-eta.

Nire errepika minberatu pertsonala zureari erantzun zala ekibokoren batek sortu dizu iñundik ere. Arrazoi agian ez nuen ezter izan, aitzaki Iritziara izan nuen, eta unamunista esan zodenatzen askotko izan ziran, orietako bi beintzat euskal irakurleen artean zegoen asko direlarik, ez zu ta Iritziara bakarrik.

Naigatu dut ori guztia, pertsonala dan guztia, ahaztu. Berriro jarriko dut planteamentu osoa, onezkeroko idatzita dago jakin-erako artikuloa ta orregatik idazten dituzt orain, zure au ikusi aurretik idatzi bainuen. Zearo konforme nagokizu: garbiago eta zintzoago mintza bearra dugu, bestela nahasmenduetan galduko gera. Galdurik aski ba gaudela, nire arretan... Onezkeroko ez dakit planteamentu zuzenik egiteko gauza ote naizen, ozta ozta baitakit zeñi begira idatzi. Planteatzeko, galdera bear dut; baiñan au zentzungebe da batzuentzat, absurdo ta metafisiko: bestearentzat kalgearri; zurretaz ez kalgearri ta ez burugabe eta norbait oso egokia ere iruditzaio nunbait...

Xabier Lete-ren (Z. A. 244) artikulorri nagokiola ez dakit zer esan ere, gizona. Despiatxurik gelditzen naiz. Jakin-erako idatzia agertzen danean ia anbeste illuntasun uxatzen dugun.

Nire pertza zer bait egokituz izango dudala ueste dut onekin.

JOSE AZURMENDI

SINDIKATOEN NORTASUNA

Aurreko idazkian esaten genuez, sindikatoa baldin ba-da langilleen elkartzete berezi eta bearrezkoa, beria-laxe datorkigu epainetara galdera auxe: Nolako izan bear du sindikatoak?

Jatorria eta emankorra izatezkerotan, erri berezi bakoitzak bere izate eta gogora antolatua; bere nortasunez jai, azi eta zabalduetako. Sindikatoaren azken-muga bera osatu eta indar eman dioten langilleen beartxurako bear du izan, eta ez beste iñungu indarrentzat.

Langillea konturatu ba-da, elkartzurik xixa-me izatek enbor lodiz izatera bihurtzen dala, eta elkartzurik indartsu izanik bere asmo, gogo, zuzentza-naia, askatasun gogoia Estadu deritzan goi-mailletara jasotzen ditula bere problema onerako, zenbait Estadu konturatu dira ere, sindikatoetatik barrera euki ditzazkela langilleak menderaturik.

Eta orra, Estadu totalitarioetan, Estadu ber-bera Sindikato sortzaille, eta aita. Errusi eta sateliteetan, Portugal eta abarretan, sindikatoa bere sortzailleen esanetara dabil, eta bere laguntza bear duan langillea, berri-z, umezurtz bezela maitasunik ikusten ez duan tokian bere beroa, ordaiñez, eman gabe, badaezpadako laguntza nabaitzen duan tokiik umezurtz zapuztutako baten antzera, igeska, itxu.

Errusi'n, norbait izendatu bear-ta, bitoen tokian errealdadeak argi ipini ditzagun, Estadu-agintaritzaz ez du erriak aukeratzten, eta Estaduak aukeratzten dituzten sindikato-agintariak, problema dituzte-tenean, jakina, sortzaille eta Estadu-nagusi mendearen makurtzen dira ameto egiñaz, langilleak edo personak balio gutxiago duelako Estaduak baiño.

Ez da onelakorik gertatzen, bere akats eta guzi, demokrazi garbiamen. Erriak aukeratzten ditu bere sindikatoak bere asmo, iritzi eta gogoz. Estaduko agintariak aukeratzeko orduan bere da-da norbait erriar bezela eta langille bezela. Bere asmoetatik gertueñak dauden politikoak aukeratu ditzazke eta, bidebatez, sindikalista bezela bere gizonak an barruan sartzeko aukera ederra ba-du.

Sindikatoan, beraz, zuzenzuzen dagozkion lantegi arazoetan berak jarritako gizonak anparatzalle izango ditu, eta goietan legeak jarri bear diradenean bere abotsez nor mintzatua izango du, eta itzegin berak eman dion berotasunez eta bultzadaz. Burruka orduetan aukeratu zituzten laguntza izango du.

Sindikatoak langilleen gogokoa bear du izan, langille bakoitzarena eta alkartua berak bezela pensatzen duten beste langille bakoitzarekin. Onela bilduko da erri bat sindikatoaren basean. Erriak berak emango diolako erri orrek antziñatik duen berezitasuna.


Sindikato batek, munduko langille beartsuen estruktura edo ezurkia izanagatik, ezurki ori bere erriaren aragiz beta, bere odolez eta biotzez ornitua eta bere gogoz osatua izango da. Eta berezitasun onekin CISC-en sartuko da, edo beste edozein internazional erakundeetan eta munduko langille guziekin bat egin.

Orko topikoa, angoo mitoa eta emengo ipuia sinideak dira. Baiña ez naitzelako iconoclasta, gutxiago iconoclasta, errealdadea edo egia maite det eta berarekin bizi-zale naiz.

Guk beñepein, euskaldunok, ala nai genuke.

«UXOLA»

TRANSPORTES



ERAMAN · EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Donosti'tik egunero:

Bartzelona, Zaragoza, Valentzi, Madrid, Oviedo, Gijon, Iruña, Bilbo eta Gaztelz'era.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14 - DONOSTIA

Tefnoak: 25.457 eta 26.987